



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Bilbaina Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak «BJC Arriagan» zikloa eskaintzen jarraituko dute 2023an eta 4 kontzertu iragarri dituzte lehen seihilekorako

- The Cuban Jazz Syndicate, Vistel Brothers, Pierre Dørge New Jungle Orchestra eta Jesper Bodilsen Trio & Mads Mathias dira programazioan sartuko diren lau bandak.

Bilbao, 2022ko abenduaren 2a.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak sustatutako «BJC Arriagan» zikloak 2023an zehar jarraituko du. Urtea amaitu aurretik hitzordu bat geratzen den honetan (Trio Manzanares, abenduaren 27an), Arriaga Antzokiak gaur bertan iragarri ditu eta salgai jarriko ditu ziklo honen barruan datorren urteko lehen seihilekoan eskainiko diren lau kontzertuetarako sarrerak.

Lehena martxoaren 28an izango da. Bilbotarrek **The Cuban Jazz Syndicate** edukiko dute berean, **Michael Olivera** bateria-jotzaile, ekoizle, konpositore eta moldatzailea buru duen talde sendoa, Espainian bizi diren artista kubatar onenetako batzuk biltzen dituen: Pepe Rivero, Ariel Bringuez, Carlos Sarduy, Miriam Latrece, Yarel Hernández eta Olivera bera. Taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du: *Y llegó la luz*.

«BJC Arriagan» zikloaren bigarren proposamena apirilean iritsiko da, hilaren 25ean hain zuzen, eta honek ere kubatar kutsua izango du. **Vistel Brothers** (Jorge eta Maikel) musika tradizio luzea duen familia batekoak dira. Bere aita Jorge Vistelek txiki-txikitatik sartu zituen musikaren munduan. Biak dira apartekoak nor bere aldetik, baina elkarrekin, anaien arteko lotura horrek inprobisazio-magia sortzen du. Jorgek (tronpetista) eta Maikel Vistelek (saxofonista) 20 urteko ibilbide artistikoa egin dute, bai Kuban, bai Kubatik kanpo, ikusleei agertokitik energia positiboa oparituz, jazz modernoa eta musika afrokubatarra uztartzen dituen beren proposamenarekin. Bere azken lana *Fiesta En El Batey* (2022) da, eta horixe izango da Arriagan egingo duten emanaldiaren ardatza.

Handik egun gutxira, maiatzaren 2an, beste emanaldi bat izango dugu Bilbon, kritika espezializatuak goian kokatzen duen eta Amerikako musika-talde handiei parez pare begiratzeko gai den Europako jazz-banda batena. **Pierre Dørge New Jungle Orkestraz** ari gara, Pierre Dørge buru duena. Dørge Danimarkako egungo eszenako musikari emankorrenetakoa eta baita irismen handienetakoa duena ere; Jazz modernotik abiatuta, Europako, Asiako, Afrikako eta Afro-amerikako musika-tradizioetako elementuak sartzen ditu bere obran, oso sintesi original bat eginez. New Jungle Orchestra 1980an sortu zen eta Duke Ellingtonen lehenengo

Orkestraren "jungla" marmar-soinu mitikoaren izena darama, eta taldeak, izan ere, haren konposizio batzuen bertsio aproposak egin ditu. Talde honi, halaber, Don Cherry, Charles Mingus edo Gil Evansen eraginak antzematen zaizkio, besteak beste. Azken batean, Europako jazzeko pertsonaia handi baten aurrean gaude, zeina talde bizi baten buru baita.

Eta Danimarkatik dator ere denboraldi honetako «BJC Arriagan» ziklorako azken proposamena. 2023ko ekainaren 6an, Eskandinaviako eszenako hirukote itzelenetako baten eta Danimarkako ahots izarretako baten baterako emanaldia ikusi ahal izango dugu. Izan ere, Jesper Bodilsen baxu-jotzailearen hirukotea laukote bihurtuta iritsiko da, Mads Mathias saxofonista eta abeslariarekin batera etorriko baitira. Kantari, konpositore eta multiinstrumentista hau handia da Danimarkan, non bere *crooner* estiloa gurtzen baitute, besteak beste, Nat King Cole, Frank Sinatra edo Harry Connick Jr. bezalako jazz abeslari handiengandik jaso duena. Laukoteak Mads Mathias beraren eta Jesper Bodilsen kontrabaxu-jotzailearen albumetako musika aurkeztuko du — azken hori Martin Andersen bateria-jotzaileak eta Steen Rasmussen pianistak osatzen duten kalitate oso handiko hirukotearen buru da—. Arriagan, beraz, lau talentu handiren eskutik eskainitako saioa izango dugu.

Kontzertu bakoitzeko sarrerak 21 euro balio ditu (deskontuekin) eta lau kontzertuetarako sarrerak dagoeneko salgai daude.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus